

UGT: «Sexu jazarpena sufritzen dute etxe langile diren emakume etorkinen erdiek»

Paperak izan arren, EAEn eraikuntza eta ostalaritzan diharduten askok ere gehiegikeriak jasaten dituzte

IBAN OCIO
Bilbo

Lan baldintza makurrak jasaten dituzte etorkinek. Paperik gabekoa guztiak, eta paperak dauzkatenetako askok. Gero eta gehiagok, UGT-Euskadiren arabera. Iaz sindikatu horretara laguntza eskean joandako 4.093 etorkinen %68k lan baimena zutela azaldu du Emilia Malaga Migrazio arduradunak. Era askotako «gehiegikerien» berri jaso du. «Bat-batean eta arrazoi barik kaleratuak izan dira %16, gizarte segurantzako dirua beren poltsikotik jarri behar izan dute %21ek, eta soldata osoa ez diete pagatu %38ri». Are okerrago, sexu jazarpena sufritzen dute etxeko langileak diren emakumeen erdiek: %53ek, zuzen esanda.

Etorkin horiek dira, hain zuzen ere, «egoera gordina» daukatenak. «Etxe barruan daude beti, eta han bertan bizi dira. Harremanik ia ez dute, ezta beren jaioterriko langileekin». Sexu jazarpena gutxi balitz bezala, irainak jasaten dituztela eta gizarte segurantzako kotizazioak soldatetik deskontatzen dizkietela salatu du Malagak. «Izugarria da». Gazteak dira etxeko langile gehienak, eta erasotzaileek «ondo» baliatzen dituzte «salaketak frogatzeko zailtasunak eta etorkinek duten beldurrak».

UGT-Euskadiko Migrazio arduradunak adierazi du oso zaila dela etxe barruan gertatutakoa ikertzzea. Eta salaketa jarri eta biharamunean, lanetik bidaltzen dituzte-

la. «Areago oraindik, lan baimena gal dezakete gizarte segurantzako kotizazioa ordaintzeari utziz gero». Atzerritarren Legea lehenbailen egokitze exijitu dio Malagak Espainiako Gobernuari. «Zentzurik ez dauka etorkinak gehiegikeriak salatzea animatzea, eta salaketen ondorioz, etorkinak eurak izatea beti kaltetuenak».

ZIGOR GOGORRIK EZ. Ugazabei gehienez ere «isunen bat edo beste» jartzen diete. Salatutako enpresak ez kontratatze eskatu dio UGT-Euskadik Administrazioari. Eskatu dio, halaber, neurri gogorragoak hartzeko etorkinak esplotatzen dituzten ugazaben aurka, eta batzuen baldintza makurrak ingurukoak estutzeko erabiltzen dituzten aurka ere bai.

■ zenbakia

%40

Etorkinek ez ezik, euskal herritarrek diren emakumeen %40ek lanean noizbait sexu jazarpena sufritu dutela azaldu du UGTk.

«Frogak biltzeko zailtasunez eta etorkinen euren beldurrak baliatzen dira erasotzaileak»

«Zentzurik ez du etorkinei salaketak jartzen animatu, eta salaketen kalteak etorkinek eurek sufritzeak»

EMILIA MALAGA
UGT-EUSKADIKO MIGRAZIO ARDURADUNA

Ettxeko langileek ez ezik, «gehiegikeria ugari» sufritzen baitituzte beste askok. Eraikuntza eta ostalaritzan dihardutenek, gehienbat. Malagak jakinarazi du Europako Batasunetik kanpoko 39.000 etorkinek dutela Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian lan egiteko baimena. Kolonbiatik, Ekuadorretik eta Marokotik datoz asko, eta emakumeak dira gero eta gehiago.

Lan egiteko baimen iraunkorra lortzeko bost urtez kotizatu behar dutela eta, beraz, esplotazioa «nola edo hala» eramateko prest daudela dio Malagak. Badakite, gainera, salaketek nekez egingo dutela aurrera. Besteak beste, Administrazioak ez diolako arazari «benetan» helden, «paperak lortzeko asmoarekin egindako salaketa faltsuak ugaritu ez daitez- edo».



Etorkinen aurka «gehiegikeria» gehien enpresa txikietan izaten da, UGT-Euskadiko Migrazio arduradun Emilia Malagak atzo ohartarazi zuenez —sindikatuak idazkari nagusi Damaso Casado dauka ondoan—

Langile bat hil da Oñatin, altzairuzko bobina batek azpian harrapatuta

Ezbeharrak salatzeak, egun osoko lanuztea egingo dute Hijos de Juan de Garay enpresako beharginek

AITZIBER ARZALLUS
Donostia

Oñatiko (Gipuzkoa) Hijos de Juan de Garay enpresan jazo zen ezbeharrak, atzo goizeko seiak aldera. Rafael Zubiagirre 42 urteko langileari burdinazko zumitz-bobina bat erori zitzaion gainera, eta har-

tutako kolpearen ondorioz hil egin zen, Osalan Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Erakundeak jakinarazi duenez.

Itxura denez, Zubiagirre 77 milimetroko zabalera eta 1.500 milimetroko diametroa zituen burdinazko bobina bat manipulatzeko ari zen, makina batean jartzeko. Portale-garabi bat ei zerabilen horretarako, baina ustekabea karga mugitu eta gainera amildu zitzaion. Osalaneko teknikariak istripuaren nondik norakoak ikertzen ari dira.

Hijos de Juan de Garay enpre-

san 370 lagun inguruk lan egiten dute, eta autogintza sektorerako altzairuzko hodiak ekoizten dituzte. Rafael Zubiagirre zazpi urte zeramatzen han beharrean.

Dolua agertzeko eta laneko segurtasuna ez dela behar bezala bermatzen salatzeak, egun osoko lanuztea egingo dute enpresako beharginek. 12:00etan elkarretaratzea egingo dute lantoki atarian, langileen batzordeak antolatuta, eta ondoren manifestazioa herrira. ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek hildakoaren familiari eta enpresako beharginei elkarta-

sunak adieraten diete, eta deialdiekin bat egiten dutela esan dute. Batasunak eta Gipuzkoako EBK ere gertatutako gaitzetsi eta erantzukizunak eskatu dituzte.

LABen zenbaketa arabera, urtea hasi zenetik 38 langile hil dira Euskal Herrian lanean ari zirela izandako istripuetan.

LANUZTEA ERAIKUNTZAN. Bestalde, CCOO eta UGT sindikatuek ordubeteko lanuztera deitu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eraikuntza sektoreko 50.000 langileak. Lan ezbeharen erdia sektore horretako langileek izaten dituztela salatzeak eta laneko segurtasuna aldarrikatzeko elkarretaratzeak egingo dituzte, Eusko Jaurlaritzak hiru hiriburuetan dituen Lan Ordezkaritzen parean, 12:30ean hasita.

Etxea eskuratzeko mailegu bereziak emango ditu Kontseilu nagusiak

ERREDAKZIOA
Baiona

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak laguntza bereziak ematen dizkie bikote xumeei, jabeago pribatuko etxetara heldu ahal izateko. Hilabetean 3.300 euro baino gutxiago irabaziko duten bikoteek %0ko interes tasako maileguak eskatzeko aukera ukanen dute. Halaber, 2.000 eta 3.000 euro bitarteko laguntza emanen diete babes sozialeko etxebizitza erosten laguntzeko. Jabeago pribatutako 350 babes sozialeko etxebizitza eraikiko ditu Kontseilu Nagusiak, 2008rako. Horietatik 50 Baionan izanen dira, eta gainerakoak Lapurdiko Hegoaldean. Bi logelako pisu batek 140.000 euro balio izanen du.

Haatik, etxebizitza horren jabe egiten direnek, ezin izanen dute hamar urteko epean berriz saldu, eta saltzekotan ere, babes sozialeko etxebizitza eraikitzen eta kuditzen dituen HLM erakundeari eman behar diote lehentasuna.

Egitasmoa aurrera eramateko, Kontseilu Nagusiak hitzarmen bat egin du Akitania Hegoaldeko Etxebizitza Mailegua erakundearekin. «Hitzarmen horren helburua, jabeago pribatutara heltzea garatzea da», azaldu du Kontseilu Nagusiak. Irabazi xumeak dituzten familiei etxebizitza baten jabe izatea ahalbidetu nahi diete, baita bizi nahi duten tokia eta nahi duten etxebizitza mota aukeratzeko ere.

ETXEBIZITZA DUINAK. Bestalde, hitzarmen horrekin etxebizitzaren egoera ere hobetu nahi dute. Etxebizitza horietan bizi diren jabeak bizilekuen egoera hobetzen lagundu nahi dituzte. «Duintasuna urratzen duten» bizitokiak desagerrarazi nahi dituzte. Hori izanen da aurtengo lehentasunetarikoa bat. Bizilekuen egoera hobetu nahi dute.

Beste gisako laguntzak ere izanen dira mailegu arrunt bat lortzeko zailtasunak dituzten jabeentzat edo jabe izan nahi dutenentzat. Zehartzegatik edo elbarri bihurtzeagatik beren bizilekuan egokitze lanak egin behar dituztenentzat ere laguntza bereziak aurreikusituz dute, jende horiek beren bizia beren etxean egiten jarraitu ahal izan dezaten.

Neurri horien bitartez, Kontseilu Nagusiak «bizitasun demografikoa sendotu» nahi du. Horrez gain, irabazi apalena dituzten familiak jabeago pribatutik kanporetza ekin nahi du.

Bestalde, alokairuan diren etxebizitza pribatuak eta komunak zaharberritzea diruz laguntzea hobetu nahi dute.